

2006



Arkeologi Ikerketa Investigación Arqueológica

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz 2007

IKERKETA, ELKARLANA ETA ELKARTASUNA MENDEBALDEKO SAHARAREKIN HANGO KULTURA ONDAREA BERRESKURATUZ ETA INTERPRETATUZ

INVESTIGACIÓN, COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD CON EL SAHARA OCCIDENTAL DESDE LA RECUPERACIÓN E INTERPRETACIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL

2004. urtea Mendebaldeko Saharako iraganeko kulturaren inguruko ikerketari eta giza elkarlanari emateko jardunaren hasiera izan zen. Orduz geroztik gaur arte Errepublika Saharar Arabiar Demokratikoko (RASD) eta Euskal Herriko ikerlariok elkarrekin osatutako lan taldea Saharako ondare ondasunak kontrolpean edukitzeko, berreskuratze eta aztertze proiektu bat garatzen ari gara.

Geopolitikaren ikuspuntutik, proiektu hau Mendebaldeko Saharako «lurralde askatueta» mugatzen da. Lur eremu hauek Errepublika Saharar Arabiar Demokratikoko kudeatzen ditu, eta Fronte Polisariok zainitzen ditu. Proiektua, beraz, «babesteko harresi marrokoarra» eraiki ondoren egun Mendebaldeko Sahara askea (ekialdean) eta Marokok okupatutako eta kolonizatutako Sahara (mendebaldean) identifikatzen eta bereizten dituen lur zerrendara mugatzen da, iparraldetik hegoaldera, herrialdearen ekialdean (egiazki lurraldearen laurdena hartzen duen eremuan).

Hori guzti hori elkartasunez eta zientziaren ikuspuntutik herri sahararren eta Mendebaldeko Sahararen lurraldeko ondarea, kultura, irakaskuntza eta gizartea garatzeko xedean. Herri sahararren parte handi bat, jakina denez, Tindouf (Aljeria) hiritik gertu dauden Errefuxiatuen Kanpamenduetan bizi da, kontzentratutik, 1975. urteaz geroztik. Kultura, beraz, gizartearen aurreramenarako tresna gisa eta, era berean, Euskal Herriaren eta Herri Sahararren giza sentsibilitatearen arteko elkarlan aktiboaren erakusgarri gisa baloratzeko tresna dugu.

Helburu estrategikoak eta kokaleku geografikoa

Ikerketa zientifikoak, arlo askoren ezagutzak, elkarren arteko harremanen gaineko ezagutzak, iraganeko kulturaren azterketak eta gizarte elkarlanak osatzen dituzte, denek batera, proiektu honen oinarri teoriko funtsezkoak.

Proiektu honetan, aldi berean, ondare izaerako (Mendebaldeko Saharako kultura testigantzen kontrola, babesa, berreskuratzea, berritzea, aztertzea eta

El año 2004 iba a marcar el inicio de una experiencia de investigación y cooperación humanitaria en torno al pasado cultural del Sahara Occidental. Desde aquel entonces hasta el presente, un equipo de trabajo constituido, conjuntamente, por estudiosos de la República Árabe Saharaui Democrática y del País Vasco, venimos llevando a cabo un proyecto de control, recuperación y estudio de los bienes patrimoniales saharauis.


El ensayo se centra, geopolíticamente, en los «territorios liberados» del Sahara Occidental, gestionados por la RASD y custodiados por el Frente Polisario. Es decir, en la franja de terreno, longitudinalmente, emplazada, de N a S, a lo largo de la parte oriental del país (del que viene a suponer, en la práctica, una cuarta parte del mismo), que, tras el levantamiento del «muro defensivo marroquí», identifica y diferencia, en la actualidad, el Sahara Occidental libre (al E), del ocupado y colonizado por Marruecos (al W).

Todo ello, con el propósito de contribuir, solidariamente, desde la ciencia, al desarrollo patrimonial, cultural, didáctico y social de la comunidad saharauí –en gran parte, como bien se sabe, concentrada, desde 1975, en los Campamentos de Refugiados próximos a la ciudad de Tindouf (Argelia)– y de ese marco territorial del Oeste del Sahara. Una forma de valorar la cultura como verdadero instrumento de progreso social y asimismo una manifestación más de cooperación activa entre la sensibilidad humanitaria del Pueblo Vasco y del Pueblo Saharaui.

Objetivos estratégicos y escenario geográfico

Investigación científica, conocimiento pluridimensional e interdependiente, estudio del pasado cultural y cooperación social constituyen, unisonamente, los pilares teóricos esenciales en que se sustenta este proyecto.

Se trata de una apuesta en la que, simultáneamente, coexisten planteamientos patrimoniales (de control, protección, recuperación, restauración, es-



Bouder Bala (Agüenit) – hego-mendebaldeko monolito zentrokideen zirkulua.

Círculo de monolitos concéntricos de Bouder Bala-SW (Agüenit).

ezagutaraztea), zientzia izaerako (Ipar Afrikako marko honen iraganeko gizarte, kultura eta ingurumena bilakatzeko forma eta prozesuen kokapena, identifikazioa, testuingurua eta azterketa) eta giza izaerako (gizarte sahararraren prestakuntza teknikoa eta hedapena) planteamenduak batzen dira.

2004. urtean lurraldea ezagutu eta lehen balorazio orokorrak egin eta gero, 2005. urtean sistematikoki hasi ginen lanean Tiris izeneko eskualdean: barne aldeko ordeka zabal-zabala da, Mendebaldeko Sahara-ren hego-ekialdeko herenean, ondoko Mauritaniako lurretan barneratzen dena.

Une honetan ikertzen ari garen Tirisko eremuak Errepublikar Saharar Arabiar Demokratikoaren mendeko «lurralde askatuen» hegoaldeko erdia hartzen du gutxi gora-behera: 30.000 km² inguruko testuinguru geografiko batez ari gara, Tindoufeko Errefuxiatuen Kanpamenduetatik hego hego-mendebaldera gutxi gora-behera 1000 km-tara dagoena, ca. 21° 20' I eta 24° 35' I paraleloen artean eta ca. 12° 00' M eta 14° 40' M meridianoen artean.

Saharako Kultura Ministerioak eskatuta, gure jardueren programak, bereziki Ipar eta Hego Sahararen

tudio y difusión de los testimonios culturales del Sahara Occidental), científicos (de localización, identificación, contextualización y estudio de las formas y procesos de evolución socio-cultural y ambiental del pasado en ese marco transcendental del África septentrional, desde la compenetración o mutua reflexión entre las ciencias sociales y naturales) y humanísticos (de formación técnica y de difusión a la sociedad saharauí).

Tras la labor de reconocimiento y valoración globales del año 2004, comenzamos a trabajar, desde 2005, de forma sistemática, en torno a la región del Tiris: una extensísima planicie interior emplazada en el tercio sur-oriental del Sahara Occidental que se prolonga por las vecinas tierras de Mauritania.

El área del Tiris que nosotros, actualmente, investigamos viene casi a representar la mitad meridional de los «territorios liberados» de la RASD: un contexto geográfico próximo a los 30.000 km², situado unos 1000 km al S.W de los Campamentos de Refugiados de Tindouf, entre los paralelos ca. 21° 20' N y 24° 35' N y los meridianos ca. 12° 00' W y 14° 40' W.

Por expresa encomienda del Ministerio Saharaui de Cultura, nuestro programa de actividades, centra-

arteko eskualde honetara mugatzen denak, bi helburu nagusi ditu 2005. urteaz geroztik:

1. Tirisko kultura aberastasuna arakatzea, aztertzea eta ezagutzea, dagoeneko bururatzen ari den Arkeologia Ondarearen Katalogoa-Inbentarioa osatzeko xedean; eta,
2. Tirisko gizarte-kulturaren eta ingurumenaren bilakaerara hurbiltzea, gizartearen eta naturaren prozesu horiek ulertzeko modua eskain dezaketen giltzarri zientifikoek bidez eta lurraldeko banaketa eta finkamendu ereduak ulertuz, beti ere kulturaren ikuspuntu integrala kontuan hartuz eta diziplina anitzaren bidez.

Logikoa denez, marko geografiko handi honek eta aztertu beharreko edukien oparoak zehaztuko dute, etorkizun hurbilean, garatu beharreko ikerketaren plan estrategikoa: izan ere, funtsezko subjektu horietara bideratuko dira datozen urteetan garatu beharreko jardura zientifikoak.

Bestalde, ez da ahanzi behar jardura hau gerran bizi den eremu batean garatzen ari garela. Behar taktikoek hartaraturik, ikerketa programak oro Tiris

do particularmente en esa región de tránsito entre el Sahara septentrional y meridional, se viene marcando, desde 2005, dos objetivos primordiales de actuación:

1. El rastreo, examen y reconocimiento de la riqueza cultural del Tiris: dentro de lo que se está ya, específicamente, elaborando el correspondiente Catálogo-Inventario del Patrimonio Arqueológico; y,
2. La aproximación a la evolución socio-cultural y medio-ambiental del Tiris: a través de la determinación de las claves científicas que posibilitan el entendimiento de esos procesos humanos y naturales y la comprensión de los patrones de distribución y asentamiento del territorio, desde una perspectiva integral y pluridisciplinar de la cultura.

Lógicamente, la correspondencia de un marco geográfico tan vasto con unos contenidos de estudio tan densos, orientarán el plan estratégico de investigación para el futuro inmediato: concentrándose en esos sujetos sustanciales las actuaciones científicas a desarrollar en los próximos años.

Por otra parte, no debe ignorarse que esta actividad se desarrolla en una zona de conflicto bélico. Ello hace que, por necesidades tácticas, se deban adap-



Leyouad-eko (Duguech) Harpe Handiko paretetako batean grabatutako giza eskemak.

Esquematismos humanos grabados sobre una de las paredes del Gran Abrigo de Leyouard (Duguech).

administratiboki banatuta dagoen 3 eskualde militarretara (hegoaldeetik iparraldera, Duguech, Agüenit eta Miyek), eremu jakin batzuetara iristeko oztopo eta eragozpenetara (esate baterako, minez jositako eremuak daude han eta hemen) eta zirkunstantzia larri eta ez egonkor hau bizi duen herrialdearen testuinguruaren ondorioz gertatzen diren behin-behinekotasunetara eta aldaketetara egokitu behar izaten dira.

Honenbestez, zientzia eta kulturaz informatzeko, prestatzeko, ezagutzeko eta ezagutarazteko esperientzia batez hitz egiten ari gara: hau da, informazioa batzuk antolatzeaz eta interpretatzeaz; irakaskuntza batzuk zorroztasunez ezagutarazteaz eta hedatzeaz; Saharako kultura ondarea eraikitzeaz eta aberasteaz; eta giza arazo baten gizarte eta zientzia izaerako hedapenaz ari gara, justizia gabezia historiko bat salatzeko dugun aldi berean.

Azterketa kanpainak eta abian diren ikerketa ildoak

Orain arte ondoz ondoko 4 kanpaina bururatu dira beste hainbeste urtetan, lur eremua aztertzeko xedean bururatuak. Lehenengoan (2004ko ekaina) lurraldea aztertu genuen; bigarrenean (2005eko apirila) artean amaitu gabe dagoen Tirisko lurraldea geografikoki ikuskatzeko lana eta Tiris sistematikoki ikertzeko planaren lehen urratsak egin genituen; hirugarrenean (2006ko martxoa) eta laugarrenean (2007ko martxoa) Tiris diziplina anitzetik aztertzeko lanekin jarraitu genuen.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren eskutik dirulaguntzak jaso ditugu zintzo-zintzo, eta horrek aukera eman digu Saharako landa-lanei dagozkien gastuak ordaintzeko.

estalde, hainbat ikerketa ildo jarri ditugu abian azken urteotan. Kulturaren planeamendu multidimensionalak, sarritan eskatu ohi dugun planteamenduak, berez eskatzen ditu azterketa diziplina anitzaren arlo berri eta ezberdinen ondoz ondoko inplikazioa eta ahalegina.

Azterketaren perspektiba honek, bere baitan kulturaren bilakaeraren kontzeptu integrala eta erreflexiboa biltzen dituenak (etenik gabe elkarrekiko kausazko harremanak dituzten materien unitate polifazetiko gisa), elkarri loturik dauden eta aztergai diren subjektuak beren osotasunean aztertzeko dinamika dakar berekin batera. Honenbestez, kulturak gai anitzak biltzen ditu, elkarri lotuta dauden gaiak, hau da, gai batek bestean du isla eta alderantziz, eta hura baldintzatzen du eta bideratzen du bilakaeraren ikuspegi batetik aztertutik. Beraz, praxia bilatu behar da lurralde honetan bertan bat egingo duten ezagutarako bideetatik abiatutik.

Kultura aztertzeko prozesurako planteamendu integral eta integratzaile, ebolutibo eta erreflexibo honen

tar los programas de investigación, tanto a la distribución administrativa del Tiris en sus 3 regiones militares (de S a N: la de Duguech, la de Agüenit y la de Miyek), como a las restricciones e impedimentos en el reconocimiento de determinadas áreas (p. e., por presencia de campos minados) y a las eventualidades y cambios de orientación sobre la marcha que derivan de un contexto inmerso en esas, particularmente, graves e inestables circunstancias.

Con todo, hablamos, en términos generales, de una experiencia científico-cultural de información, formación, conocimiento y transmisión: es decir, de organización e interpretación de unas informaciones; de comunicación y divulgación con rigor de unas enseñanzas; de construcción y enriquecimiento del patrimonio cultural saharauí; y, de difusión social y científica de una problemática humana, junto a la denuncia de una injusticia histórica.

Campañas de exploración y líneas de investigación en curso

Hasta la fecha se han realizado 4 campañas anuales, consecutivas, de exploración sobre el terreno. La primera (Junio de 2004) fue de reconocimiento del territorio; la segunda (Abril de 2005) compaginó la labor aún pendiente de inspección geográfica con el inicio de un plan de investigación sistemática del Tiris; la tercera (Marzo de 2006) y cuarta (Marzo de 2007) han proseguido con la tarea de estudio pluridimensional del Tiris.

Hemos venido disfrutando regularmente de una subvención económica de la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco: ello nos ha posibilitado sufragar los costos correspondientes a la investigación de campo en el Sahara.

Por otra parte, son ya varias las diferentes líneas de investigación puestas en marcha en estos años. Un planteamiento multidimensional de la cultura, como el que con frecuencia solemos abogar, requiere, por definición, la implicación y el ensayo progresivo de diferentes y nuevas áreas de estudio pluridisciplinar.

Esta perspectiva de análisis, en la que subyace, inherentemente, una concepción evolutiva, integral y reflexiva de la cultura (a modo de unidad polifacética de materias en permanente interrelación causal) conlleva su comprensión dinámica como integridad de sujetos de estudio mutua y recíprocamente entrelazados. Trasciende de ello la cultura como una multiplicidad cualitativa de temas interdependientemente articulados, es decir, que uno tiene el reflejo en el otro y viceversa, al que condiciona y orienta evolutivamente. Ello, en consecuencia, exige contemplar una praxis a partir de diferentes vías de conocimiento convergentes sobre el terreno.

Conforme a este reforzado planteamiento, integral e integrador, evolutivo y reflexivo, del proceso de aná-



Ezkerraldean «Sebjek», edo ur gaziek aldi batez okupatutako sakonuneek, Zug-eko (Duguech) honakoak bezala, sarritan ezkututzen dituzte aintzira inguruko aztarnategiak. Eskuinaldean Gnefisa Oum Agraïd (Duguech) – hegomendebaldeko Neolito aroko habitataren armadura geometrikoak eta industria formak, sukarrian landuak.



A la izquierda las «sebjas», o depresiones ocupadas temporalmente por aguas saladas, como esta de Zug (Duguech), asocian, frecuentemente, un considerable repertorio de yacimientos perilacustres. A la derecha armaduras geométricas y formas industriales, en sílex, del hábitat neolítico de Gnefisa Oum Agraïd-SW (Duguech).

arabera, iraganeko kulturaren ideia orokorra aztertzeko xedean hainbat arlo ukitzeko erabakia hartu genuen: Arkeologia, Klimatologia, Hidrografia, Kartografia, Geologia, Paleontologia, Antropologia, Etnografia, Soziologia eta beste arlo batzuk.


Ildo honetatik, une honetan Tirisen ari gara lanean, hainbat ikerketa ildo ditugu zabalik, espazioan denek bat egiten badute ere:

1. Ondare arkeologikoaren kontrola eta erregistroa eta iraganeko *gizarte-kulturaren datuen* azterketa. Gaur egun, funtsean, aztarnategi arkeologikoak bilatzera eta ezagutzera bideratzen ditugu ahaleginak, baita ustezko interes arkeologikoko espazioak baloratzeko lanetara ere, lur eremuak azaletik eta sistematikoki miazteko programa bati jarraiki. Jarduteko modu hau eskualde bateko aberastasun arkeologikoa ezagutzeko modu bikaina izateaz gainera, tresna metodologiko guztiz zorrotza da etorkizun hurbileko ikerketaren dinamika bideratzeko orduan.
2. Denboraren joanean ingurugiro ekosistemak bizi izan duen bilakaera eta espazio honetan *bizirauteko* baliabideen inguruan izandako antolamenduaren, banaketaren eta esanahiaren ezagutza. Une honetan ingurumen izaerako erreferentziak eta gizartea-ekonomia bizirauteko funtseko elementuak identifikatzen eta kokatzen ari gara espazioan: bereziki testuinguru paleohidrografikoak eta lehengaien azaleratze-eremuak aztertzen ari gara. Iraganeko giza taldeen *gizarte* dinamikan ezinbestekoak ziren baliabideak eta agenteak kontrolatzeko eta baloratzeko estrategia da. Aldi berean, eredu

lisis cultural, se considera la apertura progresiva de diferentes campos de estudio compartido en torno a la idea vertebral del pasado cultural: Arqueología, Climatología, Hidrografía, Cartografía, Geología, Paleontología, Antropología, Etnografía, Sociología,...

En este sentido, en el momento presente, estamos operando, simultáneamente, en el Tiris con diversas líneas de investigación concurrentes en el espacio:

1. El control y registro del patrimonio arqueológico y el análisis y estudio de los *datos socio-culturales* del pasado. En la actualidad se orienta, fundamentalmente, la actividad hacia la búsqueda y reconocimiento de los yacimientos arqueológicos, y la valoración de aquellos espacios de potencial interés arqueológico, conforme a un programa sistemático de prospecciones superficiales del terreno. Además de constituir esto, esencialmente, una forma óptima de conocer la riqueza arqueológica de una región, resulta asimismo un riguroso instrumento metodológico de cara a dirigir la dinámica de la investigación en un futuro próximo.
2. La determinación y sucesión de los diferentes ecosistemas ambientales en el tiempo y la organización, distribución y significación de los recursos de subsistencia en el espacio. Se está procediendo a la identificación y al registro espacial de los referentes medio-ambientales y de los elementos representativos de la subsistencia socio-económica básica: con una especial incidencia en los contextos paleohidrográficos y en los afloramientos de materias primas. Se trata de una estrategia de control y valoración de los agentes esenciales y recursos indispensables en la dinámica social de los gru-



Legteitera-3 (Agüenit) harpeko horma-irudiaren kopia: arkulari bi abelgorri handi bat ehizatzeko jarreran.

Calco sobre la escena pictórica del abrigo rupestre de Legteitera-3 (Agüenit): dos arqueros en actitud de cazar un gran bovino.

horietatik eratorriak dira ingurugiro arloko paleoekosistemekin eta Saharako paleoklimatologia orokorrarekin zerikusia duten inplikazioak

pos humanos del pasado, y de los que, paralelamente, derivan una serie de implicaciones significativas en relación a la determinación de los paleoecosistemas ambientales y a la paleoclimatología sahariana general.

3. Paleosozioetnografiari hurbiltzeko programa. Iraganeko gizarte informazioak, jarrerak eta portaerak argitzeko, ulertzeko eta gure egiteko esperientzia da (eta, logikoa denez, arkeologia izaerako «azalpenak» emateko), beti ere gure bilaketa «paraetnologikoaren» ikuspuntutik planteaturik. Praktikan, hasieran bederen, inkesta eredu baten bidez biltzen ari gara informazio hori guztia; inkesta hauek beduino talde nomadei egiten dizkiegu, Tirisko eskualde ezin idorrago hauetako biztanle ibiltariei.
4. Toponimiari buruzko informazioaren eta dokumentazioaren arakatzea. Tirisko historiaren bilakaeraren prozesura hurbiltzeko beste bide bat, bide osagarria, aintzat hartzean eta baloratzetan datza programa hau. Xede horretan, toponimiari buruzko informazioa berreskuratu eta

3. El programa de aproximación paleosocioetnográfica. Se entiende como una experiencia orientada hacia el desvelamiento, asimilación y comprensión de informaciones, actitudes y comportamientos sociales del pasado (y, lógicamente, lo que de ello deriva para con la obtención de «explicaciones» arqueológicas), planteada desde nuestra propia perspectiva de búsqueda «paraetnológica». En la práctica, se está conduciendo, de forma inicial, a través de un modelo de encuesta, elaborada al efecto, destinada a los grupos nómadas de beduinos, habitantes itinerantes eventuales de estas tierras hiperáridas del Tiris.
4. La observación de la información y documentación toponímica. Se trata de considerar y valorar otro camino más de aproximación, complementaria, al proceso de evolución histórica del Tiris, a partir, en principio, de la recuperación y el registro de la información toponímica,

erregistratu dugu, eta ondorioz, toponimian be-
reizten diren hizkuntza mailak utzitako datuak
eta dokumentuak arakatu eta aztertu ditugu.
Iturri idatziek eta dokumentu kartografikoek es-
kaintako informazioarekin batera, oharrak jasot-
zeko kaier bat prestatu eta osatu dugu, toponi-
mia izen bakoitzak bere fitxa duela; kaiera
biztanle nomaden artean, lurraldea oso ondo
ezagutzen dutenen artean, banatu dugu.

Gainera, 2005. urteaz geroztik, Informazio Geo-
grafikorako Sistemen metodoari jarraiki, landa-lanetan
lortutako informazio eta datuen tratamendu eta ku-
deaketa georreferentziala egiten ari gara. Beraz,
esan dezagun aldi berean informazioa prozesatzeko
GIS programa bat bururatzen ari garela, eta aztertu-
tako lurraldeko gaikako kartografia berritzaile bat sor-
tzen ari garela.

Emaizten balantze laburra: hausnarketak eta helburu orokorrak

Landa-lanetan eman ditugun urte hauetan zehar
aipagarria da Tiris aldean lortzen ari garen datu eta in-
formazioen kopurua, batez ere Arkeologia arloan –
zalantzarik gabe orain arte ekindako kanpainetan ga-
rapen mailarik handiena iritsi duen ikerketa ildo
baita– erdietsitako datuen kopurua. Abian diren beste
ikerketa esparruak askoz ere mugatuago daude, as-
koz ere berriagoak dira, batzuk esperimentazio fasean
daude (esate baterako, arlo paleosozioetnografikoa
eta toponimiari lotutakoa) eta beraz, esan dezagun
horietan hasi berriak garela, aplikazioaren lehen urra-
tsetan.

Lehen ere aurreratu dugun bezala, ikerketa arkeo-
logikoaren ildo nagusia, oraingoz, aztarnategi arkeolo-
gikoen aurkikuntzara eta identifikaziora mugatzen da.
Landa-lan hauek lur eremuan bertan gainazala ikuska-
tzeko programa bat aplikatuta bururatzen dira; hala-
tan, miaketa intentsiboak egiten dira espazio zabal eta
esanguratsuen testuinguruetan, esate baterako ain-
tzira inguruko eremuetan, duna arteko sakonuneetan,
mendialdeetan eta beste testuinguru batzuetan.

Kopuruari bagagozkio, dagoeneko berrehundik
gora aztarnategi berri eta erreferentzia arkeologiko di-
tugu kontrolpean. Eta egindako aurkikuntzen kronolo-
giari-kulturari eta gaien aniztasunari buruzko ebaluazio
kualitatiboa ez da apalagoa: habitatak, lehengaiak
ustiatzeko tailerrak, harpeetako grabatu eta pinturen
gune artistikoak eta erritoak bururatzeko guneak, hil-
dakoei lur emateko nekropoliak,... Horrek guzti horrek,
zalantzarik gabe, Tirisko arkeologia ondarearen abe-
rastasunaren adierazpenik objektiboena osatzen du.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu, batetik, lurral-
de-testuinguru selektiboen ezagutzan oinarritutako
miaketa sistemen arabera aplikazio metodolo-
gikoa bere mugak dituela, eta bestetik, oraindik egi-

y, consecutivamente, del análisis y examen de
los datos y documentos aportados por los dife-
rentes estratos lingüísticos presentes. Junto a
la enseñanza procurada por las eventuales
fuentes escritas y los documentos cartográfi-
cos, se ha confeccionado, y puesto ya en prác-
tica, un cuadernillo de anotaciones, con fichas
toponímicas individualizadas, que se distribuye
entre la población nómada y conocedora del
territorio.

A esta serie de actuaciones hay que añadir, ade-
más, que, desde 2005, se viene procediendo al trata-
miento y gestión georreferencial de los datos e infor-
maciones de campo obtenidas, conforme a la
metódica de los sistemas de información geográfica.
Ello significa que, de forma paralela, se viene realiza-
ndo un «*programa GIS*» de procesado de la informa-
ción, que, por otra parte, está comenzando a generar
una novedosa cartografía temática del territorio anali-
zado.


Balance sumario de resultados: reflexiones y propósitos generales

A lo largo de estos años de experiencia de campo
es muy notable el número de datos e informaciones
que estamos obteniendo en el Tiris, especialmente en
el dominio de la Arqueología –la línea de investiga-
ción, sin lugar a dudas, más desarrollada en las cam-
pañas emprendidas–, siendo considerablemente más
limitados en los otros campos de conocimiento en
curso, bastante más noveles, e, incluso, algunos de
ellos en fase muy experimental (como el paleosocio-
etnográfico y el toponímico), y, por lo tanto, de aplica-
ción, en términos generales, sensiblemente, más inci-
piente.

La línea de investigación arqueológica se centra,
por el momento, como hemos adelantado, en la loca-
lización e identificación de los yacimientos arqueológi-
cos. Una labor de campo que se efectúa a través de
un programa de inspecciones superficiales sobre el
terreno, conducido, operativamente, por una serie de
prospecciones intensivas llevadas a cabo sobre con-
textos espaciales extensivos y significativos, como
áreas circunlacustres, depresiones interdunares, re-
lieves y contextos montañosos,...

Cuantitativamente, superan ya los dos centenares
los nuevos yacimientos y referentes arqueológicos
controlados. Y no menos prolífica se ofrece la evalua-
ción cualitativa en relación a la caracterización crono-
cultural y a la diversidad temática de los hallazgos
efectuados: hábitats, talleres de explotación de mate-
rias primas, estaciones artístico-rituales de grabados
y pinturas rupestres, necrópolis funerarias,... Ello
constituye, sin duda, la manifestación más objetiva de
la riqueza patrimonial arqueológica del Tiris.

Con todo, aún siendo conscientes, por una parte,
de las limitaciones que conlleva la aplicación metodo-
lógica de un sistema de prospección sustentado en el
reconocimiento intensivo de contextos territoriales se-



Amâbana (Duguech) – ekialdeko nekropoliko megatumuloetako bat.

Uno de los megatúmulos de la necrópolis de Amâbana-E (Duguech).

teke dagoela miaketa estentsiboak eskatzen duen lan gaitza. Beraz, ikerketa arkeologikoa egun han bizi den ekosistema ezin idorragoarekin eta geografia fisiko nahiz biztanleen geografiarekin kontrakarrean dagoen geografia, ingurumen eta biztanle izaerako perspektiba eskaintzen ari zaigu. Baina, bestalde, garai bateko Tirisko benetako panorama eskaintzen ari zaigu, Tiris giza okupazio aski intentsibo eta egonkoraren egoitza izan baitzen, bereziki Holozeno aroaren hasieran eta erdialdean (ca. 10000-3000 bp), arlo garrantzitsuenetan Neolito aroko gizarteen bilakaera orokorrek bat eginez. Izaera subtropikaleko biotopo gisa baliatu zuten –horrek dakarren guztiarekin baliabideen, landare eta animalien eta bizirauteko funtseko gaien jasangarritasunari dagokionez–, harrizko tresnak lantzeko eta kudeatzeko egokiak diren harri gogor mikrokristalinoak eskura baitzituzten, eta ondorioz, Tiris okupazio egonkorerrako leku bihurtu zuten.

Baina, gainera, inguru geografiko horretan bertan askoz ere lehenagokoak diren historiaurreko beste egoera batzuk erregistratzen hasiak gara. Halatan, Erdi Pleistozenoko hainbat sasoitan gizakien presentzia aberatsa hautematen dugu, Mendebaldeko Saharako Acheul aldiko (erdi, goi eta azken Acheul aldiak) industria tekno-komplexuen garapenarekin bat eginez...

lectivos, y, por otra parte, de la ingente labor de rastreo extensivo que resta pendiente por hacer, podemos afirmar que la investigación arqueológica está, inequívocamente, procurando una perspectiva geográfica, ambiental y poblacional antagónica con el ecosistema hiperárido allá vigente y la geografía física y humana de su paisaje actual. Ofreciendo, en rebanca, un panorama retrospectivo realista del Tiris como marco de ocupación humana, relativamente, intenso y sedentario, especialmente durante las fases inicial y plena del Holoceno (ca. 10000-3000 bp), en concordancia, en una parte sustancial, con la evolución genérica de las sociedades neolíticas. A modo de biotopo de carácter subtropical –con lo que ello supone de sostenibilidad de recursos, vegetales y animales, de subsistencia elemental–, que, unido a su disponibilidad en diversas rocas duras microcristalinas, apropiadas para, la talla y gestión del instrumental lítico, hicieron de él un escenario de ocupación estable.

Pero, además, estamos comenzando a controlar en ese mismo medio geográfico otras situaciones prehistóricas, de mucha mayor antigüedad, que nos hacen atisbar un rico horizonte de presencia humana a lo largo de varias fases temporales del Pleistoceno medio, coincidiendo con el desarrollo de los tecnocomplejos industriales del Achelense medio, superior y final del Oeste del Sahara...

Etorkizunean bururatu beharreko ikerketen aurreikuspenen arabera gero eta informazio arkeologiko gehiago lortuko dugu, eta ez soilik egun lur eremu bertan bururatzen ari garen gainazaleko miaketa lanei esker, baizik eta, logikoa denez, aztarnategien artxibotik bereizitako lekuetan bururatu beharreko interbentzio xeheagoei, zundaketa eta indusketei, esker.

Halako intentsitate batez miatutako lurraldea oraindik oso mugatua den arren, testigantza oparo eta ugaria eskaintzen ari zaigu. Behar-beharrezkoa da etorkizuneko miaketa lanetan ere arlo honetan aberasten eta sakontzen jarraitzea. Abian jarritako ikerketa programen garapenean hutsuneak daudela onartzen dugun arren eta lanean ari garen inguru bereziak tarteka nahitaezko mugak ezartzen badizkigu ere, esan dezagun kulturaren aurrean dugun kontzepzio multidimentsionala estu lotuta dagoela *«Tirisko gizarte, kultura eta ingurumenaren bilakaeraren prozesuari»* buruzko ikerketa proiektu honen arrazoibide integral, dinamiko eta erreflexiboarekin. Dagoeneko abian diren azterketa bideei eustea eta sendotzea, eta arian-arian sor litezkeen beste lido batzuetan jardutea, beraz, ezinbestekoak dira bila ari garen ezagutza integrala erdiesteko.

Aurrera egiteak bilatzen eta aztertzen ari garen subjektuei galdera berriak egitea eskatzen du, haiek biltzen dituzten testuinguruak gero eta hobe ezagutzeara, azterketa eremu berriak ikuskatzea, informazio gero eta oparo eta konplexuagoak zientifikoki kontrastatzea,... Bestela esanda, gure galdetegira gero eta galdera kopuru handiagoa jasotzea eskatzen du, izan ere bat gatoz E. O. Wilson adituarekin honako hau dioenean: *«Zientziaren historiagileek sarritan adierazten dute galdera egokia planteatzea erantzun egokia jasotzea baino garrantzitsuagoa dela. Galdera hutsa bati emandako erantzun egokia hutsa da era berean, baina galdera egokia aurkitzea handiak egiteko bidea da, nahiz eta galdera horri zehatz erantzutea ezinezkoa izan»*.

Gizarte eta Kulturen Zientziaren partaide garen aldetik, beraz, jarrai dezagun Tirisko kulturari buruz dakizkigunak aberasten, eta jarrai dezagun,aldi berean, irakasgai batzuk osatzen eta ezagutarazten, nola gizaratean hala zientziaren arloan. Iraganeko kulturaren inguruan zientzia eta giza elkarlana sustatuz, hau da, Mendebaldeko Sahararen kultura ondarea bilatuz, berreskuratuz eta interpretatuz, lurralde haren aldeko elkartasuna sendotuko dugu.

Las previsiones de investigación futura nos hacen augurar un cada vez más ingente volumen de las informaciones arqueológicas, y no solamente a partir de la presente práctica de la prospección superficial del terreno, sino, lógicamente, de intervenciones más minuciosas (en forma de sondeos y excavaciones) que deberán acometerse en aquellos lugares seleccionados del archivo de yacimientos.

A pesar de ser todavía muy limitado el territorio reconocido con cierta intensidad, son muchos los testimonios que está proporcionando. Es necesario continuar enriqueciendo y profundizar en este conocimiento en exploraciones venideras. Asumiendo las insuficiencias en el desarrollo de los programas de investigación emprendidos y las obligadas y eventuales restricciones que conlleva el particular medio de trabajo en que operamos, hemos de reafirmarnos, con todo, que nuestra concepción multidimensional de la cultura es indisociable del razonamiento integral, dinámico y reflexivo que fundamenta este proyecto de investigación sobre *«El proceso de evolución socio-cultural y ambiental del Tiris, en el Sahara Occidental»*. El mantenimiento y la consolidación de las vías de estudio puestas ya en marcha, y la apertura de otras nuevas que progresivamente puedan ir generándose, resulta, por tanto, consustancial con ese conocimiento integrador que postulamos.

Avanzar significa formular nuevas cuestiones a los sujetos de búsqueda y estudio, comprender progresivamente mejor los contextos y medios que los encierran, contemplar nuevos espacios de análisis y contrastación científica de mayores y complejas informaciones,... En otras palabras, incorporar un cada vez mayor número de preguntas a nuestro formulario, pues, hay que convenir con E. O. Wilson que: *«Los historiadores de la ciencia observan con frecuencia que plantear la pregunta correcta es más importante que obtener la respuesta correcta. La respuesta correcta a una pregunta trivial es también trivial, pero la pregunta correcta, aunque sea insoluble de forma exacta, es una guía para los grandes descubrimientos»*.

Como parte de la Ciencia de las Sociedades y Culturas que somos, sigamos, pues, progresando con un cada vez mayor y mejor flujo de conocimientos sobre la cultura del Tiris y la aproximación a sus procesos sociales y ambientales, y continuemos, paralelamente, formando y transmitiendo, social y científicamente, unas enseñanzas. Será la mejor manera de contribuir firmemente a reforzar este estímulo solidario hacia el Sahara Occidental desde la cooperación científica y humana en torno al pasado cultural, es decir, desde la búsqueda, recuperación e interpretación de su patrimonio cultural.

Andoni Sáenz de Buruaga

Euskadi-Sahara Kultur Bilakaerarako Erakundea / Asociación Vasco-Saharaui de la Evolución Cultural